

G7ren kondar humanoak



JUAN MARI ARREGI

G7 osatzen duten munduko herrialde aberatsenek utzi dute setiatu-rik Biarritz, kapitalismoaren “aurpegi humanoaren” erakusgarri izan nahi omen duen keinu baten bidez. Estatu-buruak babesteko eta herritarrak erreprimitzeko 34 milioi euro gastatu dituzte, eta Lapurdiko herrian izan diren bitartean, Amazonian sute oso larriak gertatu dira, beste behin Lurraren birika arriskuan jarritz.

Soilik Bolivian suteek milioi bat hektarea baso kiskali dute. Galdutako hektarea bakoitzarekin, larrialdi klimatiko bizkorraren agertoki beldurgarria hurbiltzen ari gara atzerabiderik gabe. Oihana erretzen denean, hark bere barruan gordetzen duen karbonoa bat-batean askatzen da atmosferara eta planeta are azkarrago berotzen da. Eta ez dezagun ahaztu: batez ere soja eta palma landatzeko edo aziendak hazteko erretzen dituzte lurrok. Interes ekonomiko eta multinazional asko dago atzean.

Testuinguru horretan, G7ak erabaki du 18 milioi dolar ematea suteak itzaltzeko. Kopuru barregarria da, kondar batzuk. Leonardo Di Caprio aktoreak emandako 4,5 milioi euroekin konpara dezakegu, adibidez. G7ak ahaztu du bere funtsezko helburua ez litzatekeela izan behar suteak itzaltzeko baliabideak bidualtzea, baizik eta Amazoniako herrialdeek jasaten duten arazo sozioekonomikoa konpontzea. Aldaketa klimatikoari aurre egiteko prebentzio politikak (ekonomikoak, energetikoak, sozialak...) sustatu beharko lituzke batez ere.

Amazoniako basoak babestea lehen-tasun politiko globala izan behar du. Lurraren birika suntsitzen bada mundu osoan izango du eragina eta nazioarteko komunitateak esku hartu beharko luke, baina ez kondar humano faltsuekin. ●



DANI BLANCO

Nagusien bake garaia

MIKEL ASURMENDI

Munduko G7koen goi bileraren osteko oihartzunak artean isildu gabe, A-8ko Oiartzungo bide ordainlekuan trabatuta nengoen enegarren aldiz, abuztuaren 29an. Hura bitxikeria: goi-bilerak iraun zuen bitartean –abuztuaren 23, 24 eta 25ean–, urteko oporren itzulera operazio jendetsuenean, Hegoaldeko eta Iparraldeko ordainlekuetan ez zen ibilgailu ilararik egon. Aste bat lehenago eta aste baten ostean, ilarak hamabost kilometrokoak izan ziren. Bitxia eta paradoxikoa.

“Nola egin dezakete goi bilera Euskal Herrian turismo gehien dagoen asteburuan eta ibilgailuek errepideetako trafikoa guztiz blokeatzen duten egunetan?”, galdetzen zuen jende askok. Paradoxikoa ez ezik, baita absurdua izan ere.

Hona datu bazuk: “Lapurdi eta Gipuzkoa arteko mugan 5.500 kamioi geldiarazi dute bilkura bitartean. Goi bilerak lau milioi euroren galerak eragin ditu garraio sektorean”. Euskal Herriko garraiolarien Hiru sindikatuko Biktork Galarza idazkari teknikoa “harrituta” zegoen: “Ez dugu ulertzen goi bilerak sortu duen kaosaren inguruan, zergatik ez duten ezer esan bertako agintariak”. Hegoaldeko gobernari jarreraz ari zen. Iparraldeko agintari zenbaitek zorrotz kritikatu baitituzte goi bilerak eragindako desmasiak. Poliziek goi bileraren aurka aritu diren herritarrekiko izan duten afrontua kritikatu dute, baita galera ekonomikoak jasan dituzten merkatariarentzat kalte-ordainak eskatu ere bai. Euskal Elkargoko lehendakari Jean-René Etchegarayk, besteak beste.

Aldiz, EAeko Iñigo Urkullu lehendakariak ez du deus erran, ez goi bileraren inguruan ez eragindako kalteez. Ertzaintzako buru Josu Bujandak hartu du hitza: “Ulertzen dugu garraiolarien haserre, baina, Eusko Jaurlaritzak Frantziako Gobernuaren aginduak kudeatu baino ez du izan”. Bere aburuz, Afrikatik heldu ohi diren auto gidariak euren etorrera mailakatu dute, eta herritarrek, Biriaturko muga ez erabiltzeko Ertzaintzaren gomendioei kasu egin diete. “G7 goi bilerarako prestatu duten azpiegitura kontuan hartuko dugu, beste irteera eta itzulera trafiko-operazioetan erabili ote litekeen jakiteko”, gehitu du Bujandak,

Frantziako Estatuaren estrategia zorrotza izan da: poliziek izua zabaldu dute lehenik eta baretasun itxura hedatu dute ondoren. Zazpi estatuen nagusikeria begi-bistakoa izan da. Erabili dituzten bitartekoak izugarriak izan dira, indar polizialen zabalpena egin ez ezik, “erakustaldia” eman nahi izan dute. Baita lortu ere: Biarritz hiria setiatu dute, kostaldeko herriak eta errepideak hustu dituzte eta bake itxura eman.

Iragan berri garai gatazkatsu bortitzean, ertzainak *Zipaio* izen gaitzesgarriaz deitua ziren. *Zipaio* “kanpotarren aginduak betetzen dituen” da. Bake garaian ere bai? ●